

ERREPORTAJEA GAZTE KOADRILEN LOKALAK · GEHIGARRIA AITOR ZABALETARI ELKARRIZKETA
BERBETAN ELI MORENO PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

BARREn

ASTEKARIA



MARTXOAK 15 eta 16

II. Aurreku eta soinu zahar txapelketa

"DANTZARA EGINIK DAUDEN ZANGOAK, EZIN BARA" (esaera zaharra)

elgolbarren einbiou !!

**Ezkertiar eta Abertzaleon
Plataforma berria**

**AURKEZPEN PUBLIKOA
LARUNBATA 15
eguerdiko 12.30etan PLAZAN**

*ezkertiar eta abertzalea bazara,
etorri Plazara*



Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

**deitu 943 30 35 55 / 943 30 35 54
635733389 / 635733388**

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

www.egunero.info/harpidetza

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Dirulaguntzak: 3035 0092 56 0920055559

Egunero

40 URTE 40 ISTORIO



Euskara eta mendia

"Mendira igotziak askatasunaz amets egiten lagatzen zigun". Mendia euskararen gordelekua izan zen garai hartan, bai Elgoibarren eta baita Euskal Herrian ere. Klean egin ezin zutena mendian egitea lortzen zuten orduko euskaldunek. Euskal giroa berpizteko zutabe garrantzitsua izan ziren mendi irteerak. Mendi batzuek, Urbiak adibidez, beren egun berezia izaten zuten eta jende mordoa biltzen zen. Mendi tontorretan ipini omen ziren gerra osteko lehen ikurrinak ere.

Elgoibarren 1960-61ean hasi ziren antolatzen mendi irteerak. Esan bezala, mendi irteera hauen helburu nagusia euskal giroa piztea eta bultzatzea zen: umeez beraien artean euskaraz egitea, gurasoek eta umeez euskaraz jardutea elkarrekin, eta, azkenik, gurasoek beraien artean euskaraz berba egitea.

Elgoibartarrak, batez ere, inguruko mendietara joaten ziren: Kalamua, Morkaiko, Arrate, San Pedro, Udaberriari hasi eta eguraldiak lagatzen zuen bitartean, ia domekero antolatzen zituzten mendi irteerak. Zer egiten zuten mendian? Jolastu. Eguna mendian pasatzeko behar zirenak motxilan hartu eta jolasean, kantuan eta dantzaz pasatzen zuten eguna.

Felixek esan digunez, 60ko hamarkada osoan iraun zuten mendi irteerak. Gero, poliki-poliki, bertan behera geratu ziren. Ez dakigu orduko eraginagatik izango den baina, gaur egun ere, mendian euskara dezente gehiago entzuten da klean baino. Apustu egingo genuke Aizkorri edo Hiru Erregeen Mahaiko puntan euskara gehiago entzuten dela Madalako parkean baino.

Felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga

iritzial



Nora goaz?

Udaberria dator eta berarekin bizitzaren berpiztea, argitasuna, indar-berritzeak, freskotasuna..., baina alaitasun guzti hauek ezin dute saihestu azken bolada honetan jasaten ari garen notiziak eta hauek dakarten kezka. Badirudi buru gainean zintzilik ezpata bat daukagula, noiz jausiko ote den zain, dinbilibanbala...

Mundua zoraturata dago. Historiari begiratzen badiogu, gerratez-gerrate idatzita dago. Orain arteko gizatasunaren garapena ere demasekoa izan da. Indar negatibo-positiboaren oreka bila, zenbat desastre eta zenbat aurrerakuntza... baina botereak handituz doaz eta egun munduko bazter guztiak hurbilago baditugu, boterea duten horiek ere hurbilago daukate denon gain eragina egiteko aukera... Eta boteredun horiek non dauzkate gizatasunaren "geneak"? Horiek ez dirudite bada hurbil, oso urrun baizik!

Pertsona bat haztea horrenbeste kostatzen da ondoren di-da batean akabatuta ikusteko! Herri baten duintasuna pausoz-pauso ateratzea horren esfortzuak behar ditu ondoren "gerra-jolas" batean zirt-zart suntsitzeko!

Udaberriak baikorra nahi du izan aurtan, urtero bezala, baina zer zaila den alaitasuna sentitzea! Itxaropena, non zaude? Nora goaz?

Eduarne Bilbao

ENen editoriak. Urtero 10 lagun inguru a izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, bei

01

21
.L

a

Kexak	5
MOTZ MotZ	8
gehigarria	13
kiROIAK	20
aGenda	24

Oharra

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzeko harpidetzak martxoan kobratuko dira (15 euro).

ELGOIBARREN ERE AURRERA EINBIOU !!

Hilabete baino gehiago pasatu da Elgoibarko ezkeriar eta abertzaleok biltzen hasi ginela Plataforma berri bat sortzeko asmoz eta hainbat bilera burutu ondoren gure lehenengo helburua lortu dela esan dezakegu. Horrela, larunbata honetan eta ekitaldi xume baten bidez Plataforma eta bere helburuak aurkeztuko ditugu Plazan eguerdiko 12.30etatik aurrera.

Baina Plataformaren aurkezpenarekin ez da ezer amaitzen. Alderantziz, etapa berri bat hasten da non herritarrak dira benetako protagonistak. Salbuespen egoeran bizi da Euskal Herria eta horregatik, momentu latz honetan euskaldunon iniziatiba berriak behar beharrezkoak dira espainolisten erasoei aurre egiteko eta gure nortasuna eta kulturaren defentsan aritzeko. Elgoibarren ere aurrera egin behar dugulako, ezkeriar eta abertzalea bazara, etor zaitez plazara!! Euskal Herriak merezi du eta!!

Juan Karlos Marcos, Abertzaleon Plataforma berriaren izenean.

GESTIO ESKOLAKO IKASLEAK EGUNKARIAREKIN

Euskal Herria berriro kolpatu dute! Pasa den otsailaren 20tik euskaldunok "Egunkaria" gabe aurkitzen gara eta Euskal kultura umezurtz aurkitzen da bere seme kuttunaren faltan, munduan den euskara hutsezko egunkari bakarra itxia izan delako. Norbanakoak eramateaz gain orain gure kultura atxilotu nahi dute euskara kartzeleratu, euskalduna eta euskal kulturaren inguruko guztia kriminalizatuz eta deuseztatuz. Alderdi espainiar eta botere judizialak hainbat alditan defendatu duten ideia aniztasuna eta adierazpen askatasuna kolpe batez ezkutatu nahi izan dute Euskal Herritik, pentsamendu bakarra bultzatuz espainiar inperialismoaren ezaugarri nagusi gisa. Euskaldunok ez gaude prest berriro ere beste Egin kasu bat jasateko, eta ez gaude prest beste 10 euskaltzale gehiago kartzelan edukitzeko. Euskalduna izatea eta euskaraz bizitzea delitu ote? Noraino heldu nahi du espainiar estatuak? Nor edo zer izango da hurrengo? Kasualitatea ote guzti hau hauteskundearen atarian eta hainbat zurrunbiloren (Prestige eta Irak kasu) artean gertatzea? Hainbat eta hainbat galdera dira egiteko eta hausnartzeko. Euskal Herriaren erantzuna argia izan da guzti honen aurrean eta Elgoibarko Gestio Eskolako ikasleak ere gure ahotsa altxatu nahi dugu euskararen eta Euskal Herriaren defentsan eta muntai polizial juridiko guzti honen aurka, gure solidaritate guztia luzatuaz Egunkariari, bertako langileei eta bereziki atxilotuei eta beren familiei. Lehengoak euskaraz bizi zirelako, oraingoak euskaraz bizi garelako eta datozenak euskaraz bizi daitezen EGUNKARIA AURRERA!

Gestio Eskolako ikasleak

Urruzunoren begi ezkutua

14,000 bagarela



BAGARELA, EZ GARELA. 14.000 BAGARELA!!!!!!!!!!!!!! oihu egin eta sorgin batzuk "BaTzArReTaRa". SASI GUZTIEN GAINETIK ETA ODEI GUZTIEN

AZPITIIIIIIIIIIIIIIK irrintzi bati lotu, eta abiatzen ziren besteak. JAKIN EZINIK

13,13,13!!!!NOLAKOA IZAN DA 13???

Zer mututu diote EGUNKARIARI atzoko 13 horren probokatzaileek??? Ez dakit zer esan..."Geure Euskal Herriak, euskaldunak desio ditu bla, bla, bla...bizitza aurrera doa eta oso lanpetuta bizi naiz eta plafffEgunkaria zer idatzi...hainbeste dira egin beharrekoak....Helbide elektroniko batzuk luzatuko dizkizuet: www.aurrera.netkgunkaria/eu/;

www.euskalnet.netileturia/egunkaria:Atx;

www.aurreraJegunkaria/eu.....

BAGARELA, EZ GARELA, 14.000 BAGARELA!µ !!!!!!! Sorginek hori ere esaten omen zuten.

TAAAAAAAAAAAAAAAAAAK,

Amaia Urzelai

BaRRen

ASTEKARIA

Nafarroa enparantza...
20870 ELGOIBAR
. 943 74 41 12
Publizitatea:
. 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comibarren
ARGITARATZAILA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA Ainhoa Andanegii ZDEENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIBATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pella Mendizabal, Edume Bilbao, Gotzon Ardetza, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanilo Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARHA Gotzon Garateren liburutik INPRISIALEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA 38-1.038/02 ISSN 1139-1855

■ ELGOIBARKOIZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundulako a/di:Jarria.



rite kutxa

1DANOBAT
NIAQUINAS XERRAMIENTA

4GOITI
" GRUPO DANOBAT

EITARTA

i,UPILVZ



- Emakume batek Udala txalotu nahi du, San Frantzisko iturri aurrean solte zegoen baldosa berehala konpondu dutelako: "Baldosa oso egoera txarrean zegoen, eta hanka sartu nuen bertan. Hamar egunez hanka mugitu ezinda egon naiz eta ezagutzen dut bertan hanka sartu duen jende gehiago. Udala txalotu nahi dut, kexa jarri eta berehala konpondu dutelako".



- Herritar batek Udala txalotu nahi du, Plaza Txikian pibote fijoak jarri dituelako: "Sarritan ezin izaten zen Plaza Txikian aparkatu, jendeak kotxea edozein lekutan lagatzen zuelako. Ez zen maniobrak egiteko Lokirik egoten, eta aparkatzeko lekua egon arren, ezin izaten zen kotxea bertan laga". Hala ere, herritar honek esan digunez, oraindik ere gaizki aparkatzen dutenak ba omen dira, eta udaltzainei beharrezko neurriak hartzeko eskatzen die.

- Larunbatetan kanpotik etortzen den jendeak, herriko leku guztiak zeharo zikinduta uzten dituela adierazi digute hainbat herritarrek: "Pista Beltza jendez beteta egoten da larunbatetan, eta dena zikinduta uzten dute. Bernardo Ezenarro kalean ere, gauza bera gertatzen da. Edozein lekutan egiten dute pixa, eta kristalak puskatzen dituzte. Anbulatorio aurreko errotondako seinalea ere behin baino gehiagotan bere lekutik kendu dute. Honen guztiaren aurrean neurriak hartu behar dira".




- Emakume batek esan digunez, San Frantzisko kalean dauden goxoki makinetan tabakoa ere saltzen dute: "Nire semeak 14 urte ditu, eta tabako pakete batekin harrapatu nuen. Gazteei ezin zaie tentazioa hain erraz jarri. Ez dago goxoki makinetan tabakoa saltzeko eskubiderik. Gauza horiek gehiago kontrolatu behar dira".



GAZTE

loka



Handiak eta txikiak. Ilunak eta argiak. Hautsak jandakoak, txukun-txukunak nahiz kez beteak. Asko eta mota guztietakoak daude. Gazte askoren bigarren etxea direla esan daiteke, nahiz eta askok etxean baino denbora gehiago ematen duten bertan. Azken boladan Elgoibarko txoko askotan, han-hemenka, hedatu dira. GAZTE LOKALAK dira, herriko neska-mutilek, espazio propio bat edukiize aldera, diru gutxi izan arren, beren poltsikoak estutuz erosi edo alokatzen dituzten txokoak. Gai honen inguruan jakinminak jota, hauetako bitara hurbildu gara ate joka eta besaulkia ere eskaini digutenez, hizketaldi interesgarri batez goxatu ahal izan ditugu belarriak herriko bi lagun koadrilarekin.

Lehenengo bisitan Oier, Unai, Aitor eta Hodei aurkitu ditugu lokal aurreko terrazan eguzkitan eserita. Laster hasi dira, ordea, beren txokoaren inguruan berriketan mingainetik tira egin gabe. Mutil gazte hauek esan digutenez, batez ere, lagunekin biltzeko tokia da beraientzat lokala, "beti taberna baten bildu ohi ginan eta, azkenerako, oso gutxi ikusten ginan. Gainera, tabernan konsumitxu in bihar da. Gastua txikixaua da lokala eukitza ta gainera askoz intimidade haundixaua ematen dau".

Koadrila bereko 11 laguneren artean daukate alkilatuta eta nahiko lan ematen omen dizkiete diru kontuek "hasieran beti plazuan barruan pagatzen gendun baina... gehixenak ikasliak gera ta lanian dabizenak ere hil hasieran diruakin nahiko problema eukitzen ditzue. Aitzakixa izan leike ze gero asteburuetan dana gatatzen dogu baina...".

Hala ere, beste kontu batzuetarako oso ondo antolatzen direla argi dago, hala salatzen du paretan izenez beteta daukaten egutegiak. Ea aste honetan nori tokatzen zaion lokala garbitzea... "bai, lokala garbitzeko turnuak dazkagu, 2 pertsonako taldiak itxen ditzugu ta aste bakoitzian talde batek daka garbiketian arduria" ta ikusi dugunez 6 euroko isuna ordaintzeko arriskupean! "bueno bai, ta hala ere eztozu garbitzen,.."

Lokala zertarako erabiltzen duten galdetzean "puuuuf!, multiusos!!!" erantzun digute. "gauza asko itxen ditzugu: adibidez karnabaletako trajia hemen preparau gendun, hitz egin, musika entzun ta batzutan jo ere bai, noizian behin lokala mejoratzeko hau pintau...danetik"

Baina kezarik ere badu koadrila honek, hasieran bizilagunekin arazotxo batzuk izanak dira "ez dute hemen inor egoterik nahi ta ez dute gu hemen egotia onartzen, gainera,

zarata atera ezkeru, zuzenian guri esan biharrian lokalan jabiana juten dia..." Gainera Elgoibarren gazteak egoteko lekua falta dela diote "mugitxu ezkeru lokalak topau leikez baina, klaro, pagau in bihar da. Udalak ez dau bat ere laguntzen. Gainera musika taldia eduki ezkeru ensaiatzeko problemak oindik haundixauak dia ze holako lokaletan ezin da jo, insonorizau in bihar dia...eta udalak ez du ensaiatzeko lokalik ematen. Elkaerrekin egoteko tabernak eta Gaztetxia bakarrik geratzen zaizkigu ta Gaztetxia ere laster botako dute!".

Kexak kexa eta arazoak arazo, hala ere, denak ados daude lokala edukitzeak txarrak baino askoz ere alde on gehiago dituela esatean eta ez dute pentsatu ere egin nahi lokalik gabe geratuko balira zer egingo luketen.

"Mugitxu ezkeru lokalak topau leikez haina, klaro, pagau in bihar da. Udalak ez dau bat ere laguntzen"

Baina, dena den, azken arazotxo bat ere ba omen dute. Izan ere, azken boladan 11 laguneko koadrilari lau hankako beste laguntxo batzuk ere batu omen zaizkio... Saguak ere onartuko al dituzte lokalean? Auskalo!

tiokinituin ere beharrezko guztia dute: sagardo garaian, sagardoa!






Bigarren bisitan ere bospasei mutilek egin digute harrera lokal garbitu berrira, nahiz eta beraien hitzetan "ez dakagu lokala garbitzeko turnorik, noizian behin, okurritzen zaigunian garbitzen dogu". Eskertzen da, ba, gure elkarriketaren aurretik honelako lanak hartu izana!

Eskalestria hemen, goitibehera bat han, tabernako barra bat harantzaxeago... Gazte hauek ere alkilatuta dute lokala "nahiko alkiler rarua da ze dana pagau bihar izaten dogu: argixa, ura...baina 22 gera ta moldatzen gera" eta bertan denetarik egiten dute "telebista ta pelikulak ikusi, karta-jokuan aritu, hitz egin, pira bat edo beste itxeko aprobe txau ere bai, kalia egin ezin daitezken gauzak egin..." eta kexa handiegirik ere ez dute "bizilagunik eztagagunez...". Hori bai, beti sortzen omen dira arazotxoak "adibidez, lehen Eroskin janarixa erosten gendun gero bertakuok zeoze gehixo pagauta —hola diru pixkat ateratzeko- jateko, ta beti ahazten zitzaigun pagatzia ta gero problemak egoten zian..." baina hori da elkarbizitzaren legea!

Ordu ugari, makina bat anekdota eta are barre algara gehiago, beraz. Lau paretaren arteko espazio soil bat baino askoz ere gehiago. Hori dira gazte lokalak. Ea hurrengoan ere horren adeitsu hartzen gaituzten!



Honelako luxuekin etxean baino hobeto!



Deba Beheko Industrialdeak 1 6,5 milioi euro inbertituko ditu Albitxuriko Poligonoan

Martxoaren 5ean inauguratutako B eta K partzelek 14.400m² izango dituzte

Jaurlaritzako Industria, Komertzio eta **Eusko** kontseilaria Josu Jon Imaz buru zela, joan zen martxoaren 5ean, Albitxuriko Industrialdeko B eta K partzelen lehenengo harria ipini zuten. Jose Mari Oruesagasti Elgoibarko alkateorde moduan eta Guillermo Garate **Deba Beheko** Industrialdeko presidente bezala izan ziren. Proiektu berri hau, enpresa txikiak eraikitzeke helburuarekin jarri da martxan.

Albitxuriko Industrialdeko obrak duela bi urte hasi ziren. Deba Beheko Industrialdeak 11.763.255 euro inbertitu ditu dagoeneko, eta B eta K partzeletan enpresa berriak egiteko, 4.221.606 euro gehiago inbertituko ditu. Deba Beheko Industrialdea



B eta K partzelak inauguratu zituzten momentua.

erakunde desberdinek osatzen dute, eta bakoitzak bere inbertsioa egin du. Sprilur enpresak inbertsioaren %51 jarri du,

Gipuzkoako Foru Aldundiak %24,5 eta Elgoibar, Eibar, Mutriku eta Mendaroko Udaletxeek %24,5.

B eta K partzelak

Albitxuriko Industrialdeak 186.571 m² ditu, eta eraikigarriak 63.215m² dira. Momentuz lur eraikigarriaren %77a dago beteta. **Martxoaren 5ean** inauguratutako B eta K partzelek 14.400m² izango dituzte. Industria txikiek izango dute lekua B eta K partzeletan. Bi pisutan banatutako bi pabiloi eraikiko dira, eta bertako enpresek 300 m² eta 600 m² arteko neurria izango dute. Obrak hasi dira dagoeneko, eta printzipioz urte bukaerarako amaitzea espero da.

Batasunak ez ditu 2003ko Udal aurrekontuak onartu

Udal Plenoan ez zuten parte hartu alkateak mozio bat gai ordenan ez sartzeagatik




Batasunako zinegotziak prentsaurrean.

Joan zen asteartean, martxoaren 11n, Batasunako zinegotziek eskainitako prentsaurrekoan azaldu zuten, ez dituzte 2003ko Udal aurrekontuak onartu. Honekin batera, Udal aurrekontuak ez onartzeko arrazoiak azaldu zituzten: Alde b atetik metodologia partehartzailea bultzatu ez izana leporatu zioten Udalari. Bigarren arrazoi bezala, azken lau urteotan ez dutela Gobernu Taldearen Politika Presupuestarioa ezagutu aipatu zuten: "helburuak eta inbertsioak burutzeko epeak eskatu ditugu baina Alkateztatik ez dugu erantzunik jaso". Hirugarren arrazoi bezala, iazko aurrekontuen

desmadrea aipatu zuten: "Aldaketa ugari izan ditu iazko aurrekontuak. Aurtengoa parekatuagoa da, baina lehenengo hainbat proiektu ez dira agertzen, Gazte Lokalaren gaia, esate baterako. Proiektu askok ez daukate jarraipenik". Laugarren arrazoi bezala, Batasunaren proposamenak ez dituztela onartu azaldu zuten: "Beti gai guztiak Batzordeetan eztabaidatzeko prest gaude, eta beraiek ez dituzte gure proposamenak onartzen". Bosgarren eta azken arrazoi moduan, Udaletxea irekia eta partehartzailea izan behar dela, eta nazio eraikuntzaren aldeko apustua egin behar duela aipatu zuten.

Jose Mari Oruesagasti izango da Elgoibarko Alkatea maiatzeko Udal Hauteskundeak arte



Joan zen martxoaren 10ean egin zen Udal Plenoan, Jose Mari Oruesagasti aukeratu zuten Guillermo Garateren ordezkotzat. Boto bidez egin zen aukeraketa, eta EAJ eta EAren botoei esker, Jose Mari Oruesagasti izango da datozen Udal Hauteskundeak arte Elgoibarko Alkatea. Batasuna, PP eta PSE-EE alderdiek zuzen utzi zuten euren botoa. Batasunaren izenean, Asier Zengotitak hainbat arrazoi aipatu zituen Jose Mari Oruesagastiri botoa ez emateko: "Azken lau urteetan bere interes propioen alde bakarrik egin du lan, ez du bere alderdikoa ez den beste

inor errespetatu, eta zenbait kasutan bera izan da abertzaleen arteko enfrontamenduen eragilea".

Azkenean, Jose Mari Oruesagastik aldeko 8 boto jaso zituen, EAJrenak 6 eta EArenak 2. Zuzen gelditu ziren Batasunaren aldetik 4 boto, PSE-EEren 2 eta PPren botoa. Jose Mari Oruesagasti Elgoibarko Udaletxeko zinegotzia izan da lau legealditan. Ekitaldiaren amaieran, Elgoibarko Alkate berriak, EAJ eta EA alderdiek eskainitako babesak eskertu eta bere postu berrirako laguntza eskatu zuten.

Aralar Alderdi Politikoa ez da aurkeztuko Elgoibarren datozen Udal Hauteskundeetan

Joan zen martxoaren 5ean Juan Martin Elexpuru eta Iñaki Irazabalbeitiak eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zuten, Aralar Alderdi Politikoa ez da datozen Udal Hauteskundeetan Elgoibarren aurkeztuko. Hala ere, Euskal Herriko hiriburuetan eta probintzia bakoitzeko herri garrantzitsuetan aurkeztuko dira. Honela, gure inguruko hainbat herritan aurkeztuko direla aipatu zuten, besteak beste, Eibar, Bergara eta Arrasaten.

Honekin batera, Aralar Alderdi Politikoa Lizarra-Garaziko itunaren desegitearekin batera sortu zela aipatu zuten. Juan Martin Elexpuru esan zuenez, "EAren su etenaren ostean Ezker Abertzalea suizidiora zihoan, eta zerbait berria egin behar zen". Aralarrek Batasunarekin bat ez egitea erabaki zuen duela bi urte inguru, eta bi arrazoi nagusi azaldu zituzten: Alde batetik, borroka armatuaren inguruko jarrera. Aralarrekoek argi daukate



borroka armatua gaur egun kaltegarria dela, batez ere, ezker abertzalearentzat. Bigarren arrazoi modura, barne demokrazia aipatu zuten, Aralarren ardatz nagusia militanteak direla, hain zuzen ere. Beraien ildo politikoa azaldu, eta Aralar XXI. Mendeko erronken aurrean Ezker Abertzale berritua bezala dennitu zuten.

Debabarrenak eta Urola Erdiak Ikaskuntza Sarean teknologia berriak bultzatzeko proiektua jarri dute martxan

"Ikastalde" proiektua Eskualde Digitala izeneko programaren barnean garatuko da. "Ikastalde" zerbitzu, errekurtso eta metodologia sarea da, eta bere helburua Debabarrena eta Urola Erdiko ikastetxe desberdinetan informazioaren teknologia oinarri duten ikaskuntza ereduak ezarri eta garatea da. Sare honen bitartez, ikastetxe desberdinen artean materialak eta ikaskuntza ereduak elkartrukatu ahal izango dira. "Ikastalde" proiektua hiru pausotan garatuko da: Lehendabizi azpiegitura guztia antolatuko dute, ondoren, formazio programak jarriko dituzte martxan, eta azkenik, irakasleen arteko komunikazioa eta materialak elkartrukatzeko saila sortuko dute. "Ikastalde" proiektua Debabarrena eta Urola Erdiko irakaskuntza zentrotan zuzenduta dago, eta erabiltzaileak ikasle eta irakasleak izango dira.

Udan Saharako haurrak etxean hartzeko kanpaina bultzatuko du Udalak

Aurreko urteetan bezala, Elgoibarko Udalak udan Saharako Herriko haurrak etxean hartzeko kanpaina bultzatuko du aurreko urtean. Kanpaina hau Euskadiko Fronte Polisarioaren ordezkariak antolatzen du. Bertan parte hartu nahi dutenek, Elgoibarko Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailera jo dezakete (943-74 10 08).

IKUSTEN AL DUZU ARRAZOIRIK IRAK ERASOTZEKO?



40 urte, mekanikoa

Ez. Esaten dituzten arrazoi guztietatik, bat bera ere ez da nahikoa. Arrazoi bakarra ekonomikoa da, petrolioia da EEBBen arrazoia.

NIKO OSORO

68 urte, etxekoandrea

Ez dago arrazoirik. Irabazi baino galdu gehixo eingo da gerra honekin. Betiko moduan, errudunak galduko dabe gehixen. Beste irtenbideren bat bilau biharko litzake.



MABI 11100189

37 urte, pintorea

Ez dago gerra pizteko arrazoirik. Beste bide batzuk daude arazoak konpontzeko, azkenean beti errugabeak ateratzen baitira galtzaile.

11,11 0911filA'el,

31 urte, botikaria

Ez, EEBBetako "zoroaren" kapritxo bat besterik ez da. Mundua dominatzea nahi du, eta horretarako petrolioaren kontrola lortu beharra dauka. Gerra honekin zerbait irabaziko duen bakarra Bush izango da.



IUTOR ITURRIOZ

38 urte, tramolista

Ez. EEBBen arrazoia petrolioia da, beste arrazoi guztiek ez dute ezertarako balio. Europa guztia gerraren kontra batzen ez bada, gerra ezingo da ebitatu.

ELICIO RODRIGUEZ

56 urte, muntatzailea

Ez, Bush-en interes propioetarako **gerra da**. Ukiezinak zirela uste zuten, baina dorre bikietako atentatuaren ostean kontraerasoa nahi dute. Mundua dominatu nahi duen tiranoa da Bush.



Anchústegui

Sanyfer

**ESPOSIZIOA
 ALMAZENA
 BULEGOA**

Olaso industrialdea
 Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
 Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
 Faxa: 943 74 37 11



st. cp,p.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

nola ALDATU diren gauzak!



1955. urte inguruko erretratu honetan, Altzolako auzoa ageri zaigu, garai hartako edertasunarekin. Udan kanpotar ugari etortzen zen ingurune honetara, eta Altzolako auzoan aurkitzen zuten aloj amendua. **Garai** hartan ostatu ugari

zegoen Altzolan, eta bainuetxe ederra ere bai, auzoko elementurik garrantzitsuen zena. Espainia guztitik etortzen zen jendea euren familiekin, baina, batez ere, izen handiko jendea etortzen zen Altzolara. Ibai ederrak zeharkatzen zuen Altzola erdi-erditik. Elgoibarko auzoa izanik, oso famatua izan zen garai hartan. Mendi artean ezkutaturik, oso auzo dotorea eta garbia zen Altzola.

2003. urteko erretratu honetan, gauzak gehiegi ez direla aldatu ikusten dugu. Baina esan beharra dago, "beraneanteen" giro hura, jadanik amaitu egin dela. Bainuetxeak martxan jarraitzen du, ur sendagarria **kanpora** bidaltzen. Ospe handia dauka, leku askotara bidaltzen da Bainuetxeako ura, eta bere salmentak estimazio handia dauka. Garai hartako ostatuak itxi eta, etxebizitza berri ugari



eraiki dituztela ikus dezakegu. Hala ere, Altzolak auzo txikia izaten jarraitzen du oraindik. Mendi ingurunean ez dago aldaketa handirik, baina ibaia garai hartan baino ur gutxiagorekin ikusten dugu. Urteak pasatu arren, Elgoibarko auzoa da, eta altzolar famatuak bertan bizi dira oraindik.

ESKOLA KIROLA AGENDA

Martxoak 15, 3. Jardunaldia

SASKIBALOAIA, Ikastolan

- **Benjaminak** ■
- 10:00 Mendaro A- Pilar D
- 10:30 Ikastola C- Herri Eskola B
- 11:00 Ikastola E- Ikastola A
- 11:30 Pilar A- Pilar C
- 12:00 Ikastola B- Herri Eskola A
- 12:30 Ikastola D- Herri Eskola C

FUTBOL 7, Mintsetan

- **Alebin mutilak** ■
- 11:15 Pilar A- Pilar B
- 11:15 Ikastola B- Mendaro B
- 12:00 Ikastola C- Herri Eskola B
- 12:00 Ikastola A- Herri Eskola A
- **Alebin neskak** ■
- 10:30 Ikastola B- Herri Eskola
- 10:30 Pilar A- Pilar B
- Ikastola A (Atsedena)

ESKUBALOAIA, Ikastolan

- **Infantil mutilak** ■
- 9:45 Pilar B- Ikastola A
- 10:30 Insti A - Insti B
- Ikastola B (Atsedena)
- **Infantil neskak** ■
- 11:15 Pilar A- Ikastola A
- 12:00 Insti A- Insti B
- Ikastola B (Atsedena)

Elgoibar Ikastola Herri Onurako Kooperatiba izendatu dute

2003-01-20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak Elgoibar Ikastola kudeatzen duen P.M. Urruzuno kooperatiba Herri Onurako izendatu du. Euskadiko interes orokorreko zat jotzen du, irakaskuntza kooperatiba delako, eta estatutueta irabazi asmorik gabeko izaera zehazten duelako.

Izendapen honek ofizialki aitortzen dio bere sorreran sustraitutako eta denok ezagutzen dugun ezaugarria. Honetaz gain, legez justifikagarri bihurtzen ditu kasuan kasuko erabaki daitezkeen exentzio, bonifikazio, subentzio eta gainerako onura ekonomikoak, eta kengarri bihurtzen ditu hari zuzendutako ekarpenak.

IMHk ISO 9000:2000 ziurtagiri berria lortu du



Aenor enpresak eginiko kanpo auditoriaren ostean, IMHk ISO 9000:2000 arau berria lortu du. 1998. urtean, ISO 9001 ziurtagiria lortu zuen IMHk. Ziurtagiri hau lortzen duten erakunde guztiek egin behar duten adaptazioa dela-eta, IMHk kalitate plan berri bat garatu zuen 2002. urtean zehar, arau berriaren baldintzak betetzeko. ISO 9000:2000 kalitatearen gestioaren oinarriko zortzi baldintzetan,

zuzendaritzaren lidergoa, prozesu eta bezeroenganako atentzioa, datuen azterketa eta langileen partaidetza nabarmentzen dira. IMH martxan jarri zenetik, enpresei eta gizarteari zuzenduta garatu du bere eginkizuna, helburua prozesu eta produktuen hobekun-tzarantz bideratuz. ISO 9000 arauari esker, beste pausu bat eman du IMHk erabateko kalitatearen gestiorantz zuzendutako medio bezala.



Pilar Ikastetna ikasleen gurasoentzako formazio programa garatzen ari da

Azken urteotan egin duen moduan, Pilar Ikastetxeak aurten ere, Udalaren laguntzaz, ikasleen gurasoentzako formazio programa garatzen ari da. Programa hau Hilario Garrudo psikologoak zuzentzen du, eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen gurasoei zuzenduta dago. Joan zen asteartean, martxoaren 11n, Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoentzako elkarbizitzaren ikasteko baloreei buruzko hitzaldia eskaini zuen. Datorren martxoaren 18an izango da hurrengo saioa, eta bertan, aisialdiko kulturari buruz hitz egingo dute.

Herri Eskolakoak Debara joango dira martxoaren 16an

Elgoibarko Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, datorren igandean, martxoak 16, Debara joango dira, Gipuzkoako Eskolarteko Jokoen barnean antolatzen den mendibide ibilaldi neurtuko lehiaketara. Goizeko 8:10ean hartuko dute trena Debara joateko. Ibilaldian zehar, Arbil mendia (435m) igoko dute, eta gero berriz Debara itzuliko dira.

Azken irteera joan zen joan zen otsailaren 16an egin zuten. 42 lagun elkartu ziren, Zestoatik Aizarnara eta ondoren Santa Engrazirako mendibidea egiteko. Eguraldi oso ona egin zuen eta oso ondo pasatu zutela azaldu digute.

Santa Engrazin ateratako argazkia.



ASTEKARIA

Elk;rrizketa

AITOR ZABALETA (ZITUEN KAZETARIT GOLKOKO AZKEN G KASUALITATEZ. 12 U GERRA BATEN ATARI IRAKERA JOATEKd A ERREPORTAJE BATZU EGITERA JOAN ZEN HERRIALDERA 2002Kti ETA 2003K0 URTARRILEAN. TXIKITATIK GUSTATU IZAN ZAIZKIO NAZIOARTEKVAIAK,ETA HAN ETA HEMEN INFORMAZIOAMAtOZ BETi SIOATZEN DELA INFORMATUTA EIITEK1 AITORT HAINBAT LEKUTAN IZAN efA BERE LA ESKER: JORDANIA, LIBANO, IRAK, AFRIKA... KONTATZEKO MODUKO GAUZA ASKO IZANGO DITU, BAINA IRAKERA EGIN DITUEN BIDAETAN ZENTRATU GARA ORAINGOAN, TAMALEZ PIL PILEAN DAGOEN GAIA BAITA. ZER GERTATZEN ARI DEN ULERTZEKO LEHEN ESKUKO INFORMAZIOA DELA IRUDITU ZAIGU.

TE) 91N BUKATU SKETAK LEIOAN, EN URTEAN, ERANDUAGO, BESTE ON GAITIEZKEENEAN, IZAN DU. KO

HUSEINEN

Aitor Zabaleta

"IRAKIARREK GERRATIK ATARA EZ DIAN SENTSAZIUA DAKE ENBARGUAN ERAGINEZ"

AITOR ZABALETA ELGOIBARTARRA 1990. URTEAN HASI ZEN LANEAN ETBN, UNIBERTSITATEKO BEKA BATI ESKER LEHEN URTEA BEKADUN GISA EGIN OSTEAN, SAIO DESBERDINETAN LAN EGIN DU HAREZ GERO: "ENTRADA LIBRE"; "EUROPA 93", "TGUNBETE" ETA BATEZ ERE "ASTEBERRI" SAIOAN EGON ZEN HAINBAT URTEZ, ETB-2RAKO GAURKOTASUNEZKO ERREPORTAJEAK EGINEZ. AZKEN URTEETAN GAUEKO INFORMATIBOETARAKO ARITU DA LANEAN, GAUR EGUN 2 ETA TELEBERRI 2 SAIOETARAKO.

Aitor Ibañeta

"Petroleua aberastasu

I Iraken izan zara ETBrako lanean, ezta?

Bai, bi aldiz izan naiz Iraken, 2002ko urtarrilean lehenik eta 2003ko urtarrilean gero. Madrilera Arabiar Aldeko Batzordearekin juteko aukera izan gendun. Urtero juten dia Irakeko egoeria ikusi eta enbarguan aurka protestatzera. Aurten gerran kontra protestatzera jun dia. Hauen bixartez ate guztixak euki ditzugu zabalik, bai el-karrizketak eitzeko, kalia irudixak grabau, ospitalak eta eskolak bisitxau, zein ministruekin berba eitzeko.

II Non egon zineten?

Batez ere Bagdaden. Irakeko hiri garrantzitsue-na eta ia bakarra da. Irakek 25 milioi biztanle ditxu eta 5 milioi hiriburuan bizi dia. Babi-loniako aztarnetan (Bagdadetik 60 kilome-trora) eta Basoran ere izan ginan, Irakek itsasora dakan irteera bakarrian.

91ko Golkoko Gerraren aztarnarik nabari al zen?

Apenas. Bigarren Mundu Gerran baino 3 aldiz bonba gehixo bota zitxuzten Iraken, baina oso azkar berregin dabe gerran apurtutakua. Enbarguakin izugarrizko mugak euki arren, oso arto daude Irak azkar berreraikitze erakutsi daben ahalmenez.

Bagdad erditik pasatzen dan Tigris ibai gaineko 13 zubi erraldoiak gerra ostian berreirakitxakua dia. Jende asko pasa da unibertsitate-tik eta ondo prestatutako herrialdia da: ingeniari, arkitekto eta tekniko oso onak daude.

I Gerra berri baten beldur al ziren irakiarrak?

Gerra hotsen aurrean, itxuraz behintzat, normal eitzen dabe bizimodua kalia. **Bi** hilabetan



**"BIGARREN MUNI
3 ALDIZ BONBA GEHI
IRAKEN, BAINA 031
DABE GERRAN**

eta desgrazi iturtha izan da irakiarrentzat



ERRAN BAINO GOTO ZIT)(UZTEN (AR BERREGIN ITUTAKOIA"

militarrak kalia ez ikustiak atentziva deitxu zigun. Atsekabertuta daoz gerra erabakitxa dauala eta ez dakala erremediorik baitakite. Hala ere, gerratik atara ez dian sentsaziva dake. 12 urteko enbargua gerra bezain txarra izan dela diote.

/ Zertan datza zehazki enbargoa?
Nazio Batuek sekula ezarri daben zigor ekonomiko luze eta gogorra da. Gerra erabili gabe herrialde bat mepian hartzeko bide bat da. Jendia Sadamen aurka altxatuko zala uste zaben arren, kontrakua gertau da, irakiarrak kanpotik erasotuta sentitxu dia eta presidentiak in bat ein dabe. Biharrezko gauza asko gabe geratu dia, Nazio Batuen arabera armak eitzekeo erabil zitzaketelako. Esaterako X izpiak edo orain gutxira arte eskoletan ezin zaben paperik ez arkatzik erabili. Paperaren material kimikoak armak eitzekeo erabil zitezkeen aitzakixakin eta arkatzen minak grafitozkoak dianez armak eitzekeo, nahiz eta tona bat bihar dan bonba bat sortzeko. Nazio Batuek 1,7 milioi pertsona hil diala

enbarguan eragin zuzenaz onartzen dabe, erdixak 10 urtetik beherako umiak, ospitxaletan ez baitaukate sendagairik. Medikuek esaten zigueenez, ume hauek aurrera aterako liake egoera normal batian.

Gurearekin alderatuz, zer bizi maila dute?

Inguruko herrialde aberatsenetakua izatetik munduko renta per capita baxuenetakoa (200 dolar urteko) izatera pasa dia enbarguan eraginez. Lehen, ondo bizi zan erdi mailako klase zabala desagertu da. Gehixenak pobriak dia. Irakasle batek 800 euro (150.000 pta) irabazten zitxun duela 12 urte, oin 6 euro irabazten dabe hilian.

Zer iritzi dute Bush eta estatubatuarrez?

Herritarrak eta gobernuak oso ondo ezberdintzen ditzuzte. AEBko gobernu dute etsai eta ez amerikarrak. Okerreko estereotipo asko ditzugu. Badirudi arabiar guztixak integristak eta fanatikuak diala, baina jende atsegina eta zabala dia benetan. Gauza on asko ditzuzte.

I Sadamen erregimenak Al Qaeda talde terroristarekin zerikusirik duela uste al duzu?

CIakoek ahalegin itzelak egin ditzuzte Sadam eta Al Qaeda lotzeko, baina ez dute lortu. Bin Ladenentzat Sadam etsaia da eta ezin du ikusi ere egin. Sadamen erregimena laikoa da eta beiraz erejea Bin Ladenen begietara.

Zer diote petroleoari buruz?

Aberastasuna aldi berian desgrazi iturri handixa izan dala. Iraken Alderdi Arabe Sozialista (BAS) dago gobernuan. Zeharo laikoak dira eta 68txik daude agintean. Alderdiko idazkari nagusia, Sadam, 79txik dao. Munduan bigarren herrialdea da petroleo



"INGURUKO HERRIALDE ABERATSENETAKUA IZATETIK MUNDUKO POBRIENETAKUA IZATERA PASA DIA ENBARGUAN ERAGINEr

aberastasunean, baina ekonomia dibertsifikatzen saiatu dia. BAS alderdiak Irak herrialde arabiarrik aurreratuena izatea lortu zuen petroleoari esker 70. eta 80. hamarkadetan.

I Zein dira Sadamen diktaduraren alderdi txarrenak?

Sadamen agintaldia desastre hutsa izan da, gerratik gerrara eraman du bere herria. 1980tik 88ra Iranen aurka, 91n Golkoko gerra... baina herri-



2002. urteko urtarrila. Amiriako refugioa (Bagdad) 91n bonbardeatu zuten 400 zibil hil ziren. Gaur egun museoa da.

txarrak bildurra diote. Sadamena diktadura gogorra da. BAS alderdi bakarra da eta ez dago oposiziozik edo kritikarik bere aurka. Hemen frankorekin gertatzen zanakin konparau leike. Jende gehixena kontra baina bildurrez dao, ia nor ausartzen dan zeozer esatera.

Eta egin al du zerbait Iraken alde?

Gauza onak ein ditzula onartuta dao: ekonomia didertsifikatu, aberastasuna ondo banatu, gizarte aurrerakoa, osasun eta hezkuntza sistema doanekoak,

mistoak, aurrerakoiak, emakumeen eskubideen defentsa. Irak potentzia handi bat izan da eta horregatik doaz bere kontra. Bestalde, Irak bere inguruan petroleoa nazionalizautan dakan herrialde bakarra da, ez dago konpainia pribatuen esku eta hori oso arriskutsua da Estatu Batuak eta beste potentzia batzuentzat.

Zer uste duzu Saddam Huseinek "dauzkan" arma kimikoei buruz?

Aitzaki bat da dudarik gabe. 91tik 98ra egon ziren inspektoreek testualki esan zaben Irak ez zala mehatxua munduarentzat'. Ezin leike Saddam moduko diktadore bat defenditxu, baina Irakeko herrixak sufriritxu dabana erabateko humillazioa izan da. Enbargoa injustoa eta inmorala da.

Aznarren jarrerari buruz, esatekorik?

Espainiak zeresan handixaua izan nahi dau nazioarte mailan. Aznar ia ez dute ezagutzen eta Espainia bigarren edo hirugarren mailako potentzia da mundu mailan. 'Matoian' albuari ipintzeko aukeria aprobetxatzen ari dia, baina gerraren aitzakixan irudixia indartu nahi izatia tristia da. Ez dot uste gauza handirik lortuko dabenik.

Zer interes dituzte estatubatuarrek Iraken?

Arabia Saudi izan da petroleo potentzia handixena betidanik eta baita Estatu

Batuen aliatua ere, baina jadanik ez da estatubatuarren gustukoa, talde integrista asko finantziatu ditzuztela ikusten baitabe. Bestalde, Saudi Arabiako gobernuaren erregimen islamiko gogorra da, talibanak baino gogorruak dia, oso integristak. Islamismoa indartu nahi dabe munduan eta diru asko gatzatzen dabe helburu horrekin. Estatu-batuarrek beste aliatu bat bilatu nahi dabe, Irak, alegia.

Zer dauka esateko Israelek?


Israel da inguru horretako AEBen aliaturik onena. Inguruko potentzia bakarra izan nahi dau hegemonia politiko eta ekonomikoa lortuz. Aurre egin diezaiokeen bakarra Irak da. Irakek bi elementu ditxu alde: asko dira, 23 milioi biztanle, eta aberatsak gainerra. Israelezako kompetentzia gogorra da.

I Gerraren aurkako manifestakiek zerbaitetarako balioko al dute?

Gerraren aurka egon dian manifestazio guztixekin bat eitxen dot. Pozgarrixa da munduan zenbat milioi pertsona mobilizatu dian ikustia. Jendia ez dao prest edozer sinisteko. Politikuek kontuan hartu dezatela morala eta etika ere garrantzitsuak diala eta ez bakarrik interes ekonomiko eta materialak. Batzuk gerra erabakitxa dake, baina eragotzi leike. Tamalez, Estatu Batuek horrenbeste soldadu bidali badiuzte zerbaitetarako izango da.



1997. urtean Yemenera oporretan egindako bidaian.



Ruanda eta Burundi arteko mugan. 1993ko urria

informazioa

TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua.....	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

KONIUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Drano Vasco	943 74 40 73
El Correo EsparmI	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

EGUNEZ

- 14 Fernandez
(Errosario kalean)
- 15 Yudego
- 16 Yudego
- 17 Zabaleta
- 18 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 19 Ibañez
- 20 Bidasolo
- 21 Etxeberria
(Sania Ana kalean)

GAUEZ


- Fernandez
- Yudego
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

6 igandea Ibarrenea



Bigarren Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa martxoaren 15ean eta 16an izango da

17 elgoibartarrek hartuko dute parte, 5 mutilek eta 12 neskak

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketaren bigarren edizioa antolatu dute Inazio Bereziarba Musika Eskolak eta Haritzek Gipuzkoako Euskal Danzarien Biltzarraren babesean. Martxoaren 15ean, zapatuan, 16:30etatik aurrera eta martxoaren 16an, domekan, 16:00etatik aurrera jokatuko da txapelketa Herriko Antzokian.



Liga eran jokatzen den Gipuzkoako Txapelketaren saio bat gehiago da Elgoibarkoa. Azkoitin hasi zuten liga mutilek azaroaren 24ean. Legazpi, Ordizia, Oiartzun, Beasain, Elgoibar eta Altsasuko txapelketetan parte hartu ostean, puntu gehien lortu dituzten 15 dantzariak Errenterian jokatuko dute finala maiatzean. Nesken mailako txapelketa urtarrilaren 26an hasi zen Urretxun. Hauek, Oiartzun, Beasain, Elgoibar eta Lezon erakutsi beharko dituzte dantzarako dohainak eta finala Legazpin izango da maiatzean. Saikapeneko puntuak batzerako orduan, mutil bakoitzak 4 herritako saiotan bakarrik hartu dezake parte eta neska bakoitzak 3 saiotan.

17 dantzari elgoibartar

Elgoibarko saioak bi kategoria izango ditu: A saila (7 eta 11 urte

bitartekoak) eta B saila (11 eta 15 urte bitartekoak). A saileko mutilek "Alpargata" eta "Agurra" dantzatu beharko dituzte eta neskek "Makil txiki zortzikoa" eta "Punto motz". B sailean arituko diren mutilek: "Alpargata", "Desafioa" eta "Agurra" dantzatuko dituzte eta neskek "Makil Handi zortzikoa" eta "Upelategi". Aurrekuak urrats ezberdinak dituzten dantza finkoak dira eta soinu zahar doinuekin, berriz, dantzariak beraien koreografiak prestatzeko askatasuna dute federazioaren araudia errespetatuz. Gipuzkoako hainbat herrietatik eta Altsasu eta Lesakatik etorritako dantzariak elkartuko dira Herriko Antzokian, tartean 17 elgoibartar, 12 neskak izango dira eta bi besterik ez mutilak. Elgoibartarrak fin aritu dira orain arteko saioetan eta lehen postu bat eta bigarren bat lortu dituzte, besteak beste.

*Gure 3. URTEURRENEAN
Udaberriari ongi etorria emateko
Menu berezia prestatu dugu:*



ZI Sfirli I
JATETXEA

8 asy. t^o Azga,
- fao: 913 71 31 26

Antzara - pateak ezti eta almendrelⁱⁿ
Ondarrul^o antxobilal^o oliba-olio birjinean
Pasta beltzel^o entsalada epela
Oilagorra ehiztari saltsan
Bakailao - solomoa piperrada ohe gainean
Ogia, postrea eta kafea

30€

(eciariak aparte)

Martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko eguna izan zela-eta, Haizea Emakume taldeak hitzaldia antolatu zuen. Eli Moreno 28 urteko elgoibartarra zen hizlaria, eta gaia, "Emakumea eta fantasia sexualak". Eli Moreno, Psikologia ikasketak burutu ostean, sexologiaren alorrean espezializatu zen, eta gaur egun Elik eskoletan dihardu sexologiari buruzko informazioa ematen. Honekin batera, Elgoibarko Biluzik sexologia zerbitzuko arduraduna dugu. Gaurkoan gure artera ekarri dugu, gizarte honetan oraindik ere tabua den gai honi buruz hitz egiteko.



"Munc u guztiak c itu fantasia sexualak"

- **Zergatik aukeratu zenuen "Emakumea eta fantasia sexualak" hitzaldirako gai moduan?**

Haizea Emakume Taldeak hitzaldi asko antolatu ditu dagoeneko emakumearen gaiaren inguruan, eta zerbait desberdina nahi zuten, hitzaldi alaiagoa, dibertigarriagoa. Honela, fantasia sexualei buruz hitz egitea erabaki genuen, desioaz eta perbertsioaz ere hitz egiteko. Emakumeen fantasiak eta gizarte honetako baloreak paretatzea zen helburua.

- **Zer dira fantasia sexualak?**

Normalean fantasiak irudi pornografikoekin lotzen dira, horregatik jende askori kostatu egiten zaio fantasiak dauzkala onartzea. Fantasiak erromantikoak eta erotikoak ere izan daitezke, eta mundu guztiak dauzka. Fantasia mordoa izaten ditugu, eta ez dauzkagu gehiago, imaginazioari ere freno jartzen diogulako.

- **Noraino heltzen da jendea bere fantasietan?**

Ez litzateke mugarik jarri behar, baina gizarteko baloreak, fantasietan ere, muga bat dira. Fantasiak edukitzea heldutasun falta dela esaten da. Emakume batek heterosexuala dela uste badu, beste emakume batekin fantaseatzen badu, lesbiana dela pentsatu dezake, eta hori gure gizartean debekatuta dago; orduan, ez du fantasiarekin aurrera jarraitzen. Oso errudun sentitzen dira askotan. Denok jartzen dizkiegu mugak fantasiei.

- **Fantasia sexualen aldekoa al zara?**

Bai. Fantasiekin gauza mordoa lortzen dira. Desioa pizten da, eszitazioa handitu egiten da, ez dago

haurdun geratzeko arriskurik, transmisio bidezko gaixotasun guztiak ebitatzen dira, zeharo erlaxatuta gelditzen da, eta gainera, errealitatek alde egiten da.

- **Fantasiak sexualak praktikan jarri behar al dira?**

Fantasiak eta errealitatea desberdinak dira, eta nire ustez ez dira praktikan jarri behar. Praktikan jarrita, fantasia asko ez lirateke beteko. Fantasiak norberak kontrolatzen ditu, baina errealitatea ez.

- **Emakumeak eta gizonezkoak fantasia desberdinak al dituzte?**

Bai. Gizonezkoa bisualki eszitaten da eta bere fantasiak irudiz osatutakoak izaten dira. Emakumeak sentimenduekin jokatzen du gehiago, eta fantasiak landuagoak izaten dira. Ezin da orokortu, salbuespenak ere badaude.

- **Sexualitateari buruzko ikuspuntuak eboluzionatu al du?**

Eboluzionatu du, baina ez jendeak uste duen beste. Askotan pentsatzen da erlijioak gazteengan ez daukala eraginik, baina gure aitona-amonon garaian bezala, oraindik ere, asko eragiten digu erlijioak. Tabu asko daude gai honen inguruan, eta jendea asko kostatzen zaio sexualitateari buruz hitz egitea. Denbora behar da hau guztia aldatzeko, baina pausu garrantzitsuek eman dira. Gaur egun, sexualitateari buruz lasai hitz egiteko edo adibidez emakumeak ere masturbatzeko eskubidea duela erreibindikatzen da, nahiz eta gero ez egin. Sexualitateak tabu izaten jarraitzen du gure gizartean, baina gauzak aldatuz doaz, homosexualitatearen gaia esate baterako.

"Sexualitateari buruzko ikuspuntua aldatu da, baina tabu asko dago oraindik"

O
N
LL.1
O
E

Pneumax Elgoibar da 7 Eskubaloi talde elgoihartarren artean onena oraingoz

Liga irabazteko aukerak dituen talde bakarra da

Sanlo Elgoibar taldeko 6 talde Euskal Liga jokatzeko ari dira denboraldi hasieratik eta Gaur Elgoibar taldea, berriz, Gipuzkoako Liga. Txapelketak azken txanpara iristen ari dira eta talde elgoibartarrek helburu desberdinengatik borrokatu beharko dute geratzen zaizkien partidu erabakigarrietan. Pneumax Elgoibar, jubenil mailako mutilak dira oraingoz liga txapelketa txukunena egiten ari direnak. Eneko Kortaberriak entrenatutako mutilak bigarren postuan sailkatuta daude, CD.

Bidasoa liderrarengandik 6 puntura. Jokatu dituzten 18 partidutatik 13 irabazi, 4 galdu eta bakarra berdindu dute. 467 gol sartu dituzte eta 399 jaso. Duela pare bat aste partidu garrantzitsua jokatu zuten Kiroldegian Bidasoaren aurka, baina jendearen animoak



Pneumax taldea bigarren postuan sailkatuta dago ligan.

ez ziren nahikoa izan irundarrak garaitzeko. Lehen postura hurbiltzeko aukera paregabea galdu zuten.

Bestalde, senior mailako neskek 4. postuan daude. Zortzi partidu irabazi eta 6 galdu ostean, lehen postutik 11 puntutara

daude (partidu bat gutxiago jokatuta) liga amaitzeko 3 partidu falta direnean. Tecnifuelle Elgoibar senior mutilen taldea 10. postuan sailkatuta dago 9 partidu irabazi, bat berdindu eta 11 galdu ostean. Liderrarengandik 15 puntura daude liga bukatzeko 5 partiduren faltan eta 7 puntuko aldea dute atzetik duten taldearekiko. Pagoaga Elgoibar kadete nesken mailako taldea 7. postuan dago, 8 partidu irabazi, 8 galdu eta bat berdindu ostean.

Tecnomeca Elgoibar kadete mutilen taldeari dagokionez, 9. postuan sailkatuta dago eta Gaur Elgoibar taldea, berriz 5. postuan dago jubenil mutilen mailako Gipuzkoako ligan. Azken hauek gertuago dituzte beheko postuak goikoak baino eta liga amaiera estua izango dute.

Alazne Escuderok GO metrotako Espainiako Atletismo Txapelketan hartuko du parte



Mintxeta Atletismo Taldeko Alazne Escudero korrikalari gazteak Espainiako Atletismo Txapelketan hartuko du parte 60 metroko proban. Valentzian jokatu da txapelketa asteburu honetan eta Kadete mailan (14-15 urte) arituko da. Egungo Gipuzkoako txapelduna da Alazne eta Euskadiko txapeldunordea. Dena dela, gutxieneko marka lortu duelako (8'25") deitu dute Espainiako Txapelketan parte hartzeko. Espainiako Txapelketa batean parte hartzen duen Mintxeta Atletismo Taldeko lehen ordezkaria izango da.

64 neska-mutilek hartuko dute parte G. Pilota Egunean Ikastolan

Zapatu honetan, martxoaren 15ean, jokatu da Elgoibar Ikastolak antolatuta eta Euskadiko Kutxak babestutako Pilota Egunean 6. edizioa. Guztira 64 neska-mutilek lortu dute finalera iristea, baina aurrez hainbat partidu jokatu dituzte finalerako sailkapen fasean. Bikoterik zaharrenak 89an jaiotakoak dira eta gazteenak, berriz, 96an jaiotakoak. Partiduak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira eta 12 tantora jokatu dira. Parte hartzaile guztiek sari berdina jasoko dute.



Himalayako Manaslu mendia igotzen saiatuko da Aritza Monasterio mendizale elgoibartarra

Peruko Siula Grande (6.356 m.) mendian zabaldu bide berriari esker 2001. urteko jarduera alpinorik onenaren saria eskuratu ostean, erronka berrien bila abiatu nahi du Aritza Monasterio elgoibartarrak Himalayara. Peruko Huaraz herrian bizi den elgoibartarrak betidanik izan duen gogoia egi bihurtzeko aukera sortu zitzaioela azaldu digu, "lagun esloveniar batzuren gonbidapena jaso nuen urrian eta 7 esloveniarrekin batera Manaslura (8.163 m.) joateko espedizioa antolatu dugu. Kide batzuk izanak dira Himalayan, baina lehen aldia izango da niretzat". Martxoaren 31n abiatuko dira Katmandutik eta maiatzaren erdi aldera arte izango dute tontorra egiteko astia, mendiaren oinera hurbiltzeko beharrezko 10 egunak barne. Japoniarrek 1956an irekitako bidetik igotzeko asmaoa dute. "Elurjauzi asko izaten dira, baina ez du zailtasun tekniko gehiegirik. Zortzi milakoen artean erdi mailako igoera da, ez zailegia ezta errezegia ere". Espedizioa prestatzerakoan zailena finantziazioa lortzea izan dela aitortu digu, "pertsonako 6.000 dolar (6.000 euro) atera zaigu. Nepalerrainoko bidaiak, baimenak eta oinarritzko kanpamenduraino dagoen



azpiegituretan (zamaketari, sukaldari, denda...) joaten da diru gehien". Aritzak Elgoibarko Kirol Patronatuaren diru laguntza txiki bat jaso du, baina diruz lagundu edo babesle izan nahi duen edonoren laguntza asko eskertuko lukeela aitortu digu. Berarekin kontaktuan jartzeko telefono bat ere eman digu: 676 151 069. E-posta: aritzam@hotmail.com.

Mugarrara mendi irteera eta baba jana Morkaikorekin martxoaren 22an

Morkaiko Mendizale Elkartek Mugarrara mendi irteera antolatu du martxoaren 22an, zapatuan. Goizeko 7:00etan Plaza Handitik irten, Bizkaia aldean dagoen Mugarra mendiaren inguruan trabesia egin (5 ordu ingurukoa) eta gosea asetzeko bertako jatetxe batean baba jana egitea da Morkaikokoen intentzioa. Arratsaldean autobusez Elgoibarrera itzultzea da asmaoa. Autobusa eta bazkariaren kostua 20 eurokoa da bazkideentzat eta 25 eurokoa gainontzekoentzat. 50 lagunentzako lekua bakarrik dago. Izena emateko Errosario kalean duten egoitzatik pasa. Telefonoa: 943 74 02 97.

3.680 euroko dirulaguntza jaso du Udal Kirol Patronatuak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Sailak 3.681,20 euroko dirulaguntza eman dio Elgoibarko Udal Kirol patronatuari. Diru kopuru hau Eskola Kirola kudeatu eta mantendu, udal egiturak sortu edo daudenak sendotu eta garatzeko helburuarekin eman du aldundiak.

EMAITZAK

Futbola

Oiartzun 2 - Haundi 0 (Pref.)
Zestoa 3 - Elgoibar 4 (1. erreg.)
Lengokoak 0 - Elgoibar 2 (Jub.)
Intxurre 2 - Elgoibar 2 (Kad.)
Aitzgorri 0 - Elgoibar 0 (Inf.)
Elgoibar 6 - Almen Aretxabaleta 1 (Neskek)

Esku pilota

Udaberri saria

Lagunak 22 - Eibar 6 (kad)
Lagunak 22 - Goierri 15 (kad.)
Lagunak 19 - Ilunpe 22 (Jub.)
Lagunak 22 - Lagunak II 9 (Nag.)

Areto futbola

Perfiles Sintal 7 - Kenci Elg. 5 (Nazional A)
Lanbroa 1 - Bilkoin Legorreta 3 (1. maila)
Lasarte 2 - Lojantzi 5 (Jub.)

Eskubaloia

Egia Joggers 38 - Gaur Elg. 15 (Juv. mut.)
Tecnomeca Elg. 25 - Urdaneta 23 (Kad. mut.)
Pneumax Elg. 20 - Urdaneta 14 (Jub. mut.)
Escolapios 27 - Tecnifuelle Elg. 26 (Sen. mut.)
Aiala Zarauz 23 - Sanlo Elg. 17 (Sen. neskek)

AGENDA

Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 15

13:00 Lojantzi - Rotulos Martin (Jub.)
16:00 Kenci Elg. -Jarrileros Portugalete (Naz. B)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 15

16:30 Haundi -Zestoa (Pref.)
18:15 Elgoibar - Soraluze (Jub.)
Domekia, 16
10:30 Elgoibar - Mutriku (Kad.)
12:00 Elgoibar - Sporting Herrera (Inf.)
16:30 Elgoibar- Urola (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 15

17:30 Gaur Elg. - Usurbil (Jub. mut.)
19:00 Sanlo Elgoibar - Muskiz (Senior neskek)

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Donostialdeko enpresak **ingeniari teknikoa** behar du. **Erref. 96585/3**

Donostialdeko enpresak **elekironikoa** behar du. **Erref. 96581/3**

Durangoaldeko enpresak **tornero eta frasadoreak** behar ditu. **Erref. 96872/3**

Zamudioko enpresak **bulegaria** behar du. **Erref. 96273/3**

Debagoainako enpresak **sistema teknikaria** behar du. **Erref. 95694/4**

Debabarreneko enpresak **mekanikoak** behar ditu. **Erref. 96287/1**

Elgoibarko enpresak **modelista** behar du. **Erref. 97481/3**

Debabarreneko enpresak **metalerako peoia** behar du. **Erref. 97398/3**

Eibarko enpresak **PRL teknikaria** behar du. **Erref. 97200/3**

Debabarreneko enpresak **ingeniari informatikoa** behar du. **Erref. 97114/6**

Houtagai moduan sartzera eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristil **943 74 80 19** edo IMH (Nora Raman) **943 74 41 32** telefonora.

ESKAERA

Emakumea asteazkenetan garbiketara lanak egiteko prest. **Ts. 943 74 22 01 (Araceli)**

+ 20 urteko mutila edozein lan egiteko prest, ahal bada tailerretan. Mekanizatu titulua daukat. **Tr. 943 74 46 14/609 93 61 86**

Neska astelehenerik ostiralera umeak edo helduak zaintzeko prest **Mendaron. tr 635 71 68 31 (Eli)**

Emakumea etxeko lanak egin, umeak zaindu edo garbiketara lanak egiteko prest. **Tr. 943 74 29 54 (M² Jesus)**

Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest. **Tr. 943 03 03 21 (Mertxe)**

Emakumea umeak zaintzeko prest. Klinika auxiliar esperientziaduna. **it 943 74 30 04 (Elena. 20:00etatik aurrera)**

Mutila buzoneo lanak egiteko prest. **tr 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

Mutila garbiketara lanak egiteko prest. **a 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

- Tituludun neska, nagusiak orduka zaintzeko prest. **tr 686 07 85 96**
- Esperientziadun neska urritasunak dituzten haurrak zaintzeko prest. **IT 686 07 85 96**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu, zein etxeko lanak egiteko prest. Arratsalde. **1T 660 19 27 82**

ESKAINZA

• Elgoibar Ikastolak TAFYD titulazioa duen, euskaraz aisa hitz egiten duen eta Eskola Kirola ondoko ezagutzen duen kirol ardura-duna behar du. Interesatuak bidali C.V. Ikastolara martxoaren 19a baino lehen.

• Umeak zaintzeko pertsona behar da.c. **676 15 46 00**

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da, ahal bada, euskalduna. **tr 656 78 98 82**

• Kamareroa behar da. **tr 943 74 42 65/943 74 01 93**

Etxebizitzak

* Duplex apartamentua alokatzen da Menorkan. 4-6 laguntzat, hondartza ondoan, erabat amueblatua. **ir 902 10 32 87**

• Etxea alokatzen da Elgoibarren. **Tr 615 72 36 12 (astegunetan 20:00etatik aurrera. Asteburuan egun osoan)**

• Pisua osatzeko jendea behar da. **tr 610 45 85 52 (21:00etatik aurrera)**

• Etxebizitza salgai Berrizen, berrituta, amueblatuta, bizitzera sartzeko moduan. **tr 626 84 18 70**

• Pisua alokatuko nuke Elgoibarren. **ir 650 94 11 73**

• Pisua alokatuko nuke Deban. **•r 615 70 91 77 "astegunetan 18:00etatik aurrera deitu. Asteburuan egun osoan)**

• Pisua erosiko nuke Eibar eta Deba artean. 30 milioitik beherakoa. **sT 615 70 91 77 (astegunetan 18:00etatik aurrera deitu. Asteburuan egun osoan)**

• Etxea alokatuko nuke herriko edozein kaletan. **tr 615 78 92 44**

Garajeak

Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan, sarrera onarekin. **660 79 53 01**

• Garaje marraduna alokairuan, Pedro Muguruza 8an. **Tr. 639 97 19 77**

• Garajea alokairuan, Pedro Muguruza 6an. **677 85 41 58**

Partikularrak

• Ingelesko klase partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. **77 943 74 31 67 (Nekane)**

• Enpresaritzak ikasleak klase partikularrak emango lituzke. **Tr. 669 68 77 05**

• Frantsez klaseak ematen dira. Maila guztiak, talde txikiak. **Te 943 74 42 73**

*Unibertsitate Lizentziatuak 2. DBH arte klaseak ematen ditu. Euskaraz eta erdaraz. Ingelesa ere. Klase indibidualak. **Tr 943 74 09 57/687 69 59 20 (Eli)**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Bestelakoak

• Flauta eta funda galdu nituen Plaza Txikito jolaslekuan otsailaren 25ean. Lanazkoa, urdin iluna.. **943 74 12 47**

• Urrezko eta pedreriadun belarritakoa aurkitu nuen urtarilean anbulatoriotik Madalara bidean. **tr 943 74 0578**

• Ikastolako forro polarra galdu duenak, pasa dadila Servicasa ferreteriatik. **Santa Ana, 28.**

• Otsailaren 19an IMHko aldapan laruzko agenda topatu zuenari, estimatuko nioke barruko paperak behintzat Udaltzinguoan utziko balitu.

Salerosketak

• Opel Kadet 1.6 sv salgai. SS-AF-[Merkea](#). **tr 943 74 05 17/ 620 01 12 64**

• Seat 127 salgai. Precio onean. **Tr 943 74 05 17**

• 4,5 kelibreko Norica Crono karabina salgai. Egoera oso onean. **sT 943 74 27 27**

• Ford Scorpio 2500 turbo diesel salgai. **tr 649 97 10 53**

• Kotxea salgai. Rover 216, GSI. Merkea. **a 635 72 30 26**

• Fiat Tempra salgai. SS-AN. Egoera oso onean eta oso merke. **73 696 49 43 78 (Lan egunetan 21:00etatik 22:00etara, jai egunetan edozein ordutan).**

• Opel Corsa salgai. Egoera onean. **1T 625 70 80 42**

• Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi, tenperatura bikoitza. Merkea. **655 71 29 59**



Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
 Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
 Tel. 943 741 461

Ordutegia:
 Astelehen-ostiral: 17:00-20:00
 Larunbata: 10:00-14:00

Agurrak



◆ Zorionak Unai, martxoaren 12an 16 urte bete zituelako. Amatxo, anaia, amama Asten, lehengusu eta osaba-izeben partez.



*Zorionak Jon, igandean hilak 16, 8 urte beteko zituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak Ixaso, martxoaren 16an 12 urte beteko zituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak Ainhoa, hilaren 10ean 8 urte bete zituelako. Elgoibarko familiaren partez, ondo pasa.



• Zorionak Juleni, 7 urte beteko zituelako. Familiakoen partez.



◆ Zorionak Nekane zure 4. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Asierren partez.



◆ Zorionak Alaitz Egatiari, martxoaren 20an 5 urte beteko zituelako. Etxekoen eta bereziki ahizpa Iratiren partez.



◆ Zorionak Angela eta Eider, datorren martxoaren 16an, 5 eta 2 urte beteko zituzuelako. Muxu handi bana gurasoen, familiakoen eta lagunaren partez.



• Zorionak Jone Makazagari hilaren 17an 8 urte beteko zituelako. Familiakoen eta bereziki ahizpa Naia eta lehengusu Ainhoaren partez.



• Zorionak Igor eta Nati. Oso ondo pasatu eguna. Guraso eta anaia-arreben partez.

BEKAK

Arte Ederrak

Madrilgo Arte Ederren Zirkuluak lau beka banatzeko deialdia egin du: arte plastikoak, arkitektura, ikus-entzunezkoak eta multimedia. Bi hilabeteko iraupena izango da. Epea: martxoaren 1etik 30era.

JARDUNALDIAK

Auzolandegiak

SCI-SIVaren intemazionalek auzolandegiak antolatuta dituzte ondoko gaien inguruan, 18 urtetik gorakoentzat: arrazakeriaren aurkakoak, solidaritatea, desarmaea, ekologia, haurrak, ezindua... Auzolandegiak ondoko lurraldeetan burutuko dira, besteak beste, Albania, Alemania, Austria, Eslovenia, Estatu Batuak, Italia, Kosovo, Serbia, Japon, Turkia... Epea: plazak bete arte.

IKASTAROKAK

Ur sorospen ikastaroa

Goierriko Gurutze Gorriak, 249 orduko ur sorospen ikastaroa antolatu du. 135 ordu teoriko eta 113 praktiko. Igeri egiten jakitea eskatzen da. Epea: apirilak 16.

Elkarteen kudeaketa

Haurralde Fundazioak nominen eta gizarte-aseguruen kudeaketari eta oinarriko zergen tratamenduari buruzko ikastaro praktikoa antolatu du irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioentzat. Epea: martxoak 18.

LEHIAKETAK

Kutxa Irun hiria

Bi modalitate daude: poesia eta nobela. Lanak euskaraz nahiz gaztelaz aurkeztu daitezke. Epea: ekainak 14.

Fantasia ipuin laburrak

EHUK Fantasia Ipuin Laburren XI. Unibertsitate Lehiaketa antolatu du. Lanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu daitezke. Epea: maiatzak 30.

Laburmetraiak

Radio Cityk film laburren lehiaketa antolatu du. Gaia eta generoak libreak izango dira. Jatorrizko formatuak bideoa izan behar du eta entregatzekoak VHS edo DVD. Epea: apirilak 7.

LANA

7 udaltzain

Eibarko udalean 7 udaltzain lanpostu oposizio lehiaketa libre bidez betetzeko deialdia. Epea: martxoak 15.

14 BARIXAKUA

22:00 ZINE-FORUM-A

"Tomates verdes fritos"

Kultur Etxean

22:15 ZINEA

"Pianojolea" (euskaraz)

Korrika kulturala

Herriko Antzokian



16:30 ELGOIBARKO H.

AURRESKU ETA SOINU ZAHAR

TXAPELKETA

Herriko Antzokian

Antolatzaile: Inazio Bereziartua M.E.

17:00 SUKALDARITZA

IKASTAROA

Kultur Etxeko sotoan

16 DOMEKIA

12:00 "UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Herriko Antzokian

16:00 ELGOIBARKO II AURRESKU

ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

Herriko Antzokian

Antolatzaile: Inazio Bereziartua M.E.

15 ZAPATUA

11:30 SUKALDARITZA

ERAKUSTALDIA

Kultur Etxeko sotoan

12:30 "ELGOIBARREN EINBIOU"

PLATAFORMAREN AURKEZPENA

Ezkertiar eta Abertzaleen Plataforma

berria

Plaza Handian

16:00 VI. PILOTA EGUNA

Ikastolako frontoian

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola



20 EGUENA

19:30 BILERA

Gaia: Abertzaleen Plataforma berriaren

5. bilera

Kultur Etxean

21 BARIXAKUA

19:30 DONOSTIAKO ZURRIOLA

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN

KONTZERTUA

Musika Eskolako Auditorioan

ZINE
kluba



"Nos hacemos faRa"

Zuzendaria: Juanjo Gimenez Peña.

Antzezleak: Pepe Perez, Vicente Gil, Ghamed MBaye.

Gimenez Peña zuzendari bartzelonarraren estraineko film umil eta harrigarria etorkizun iluneko gazteri nahasiaz mintzo da. Noraezean doazen 5 pertsonaia marginatu eta sustrairik gabeen abenturak kontatzen dizkigu road-movie triste honek. Ez dakigu gauza asko beraien iraganari buruz, baina orduan egindako akatsek egungo egoeran eragin nabarmena dute. Bostek familiarekin erlazio guztia galdua dute eta batzen dituzten gauza bakarrak bidaia eta abenturak dira.

ZINEA

"Pianojolea" filma euskaraz

Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak AEK euskaltegiarekin elkarlanean eta Korrika Kulturalaren barruan, helduei zuzenduriko "Pianojolea" filmaren emanaldia antolatu dute gaur, martxoak 14, gaueko 22:15ean. 2002an Cannessen Urrezko Palma irabazi zuen Polanskiren pelikula honek II. Mundu Gerrako urte gogorretako Varsoviako ghetto bizimodua kontatzen du. Gainbehera datorren mundu baten erdian bizirik irauten duen pianista judu baten historia da ardatza. 2.000. urtean hil zen Wladyslaw Szpilmanen biografian dago oinarrituta, eta Canesko Zinemaldian sari nagusia irabazi zuen. Pelikula hau euskaraz ikusteko aukera izango dugu Elgoibarren, gaur, barixakua, 22:15ean Herriko Antzokian.

ERAKUSTALDIAK

Sukaldaritza erakustaldia

Sukaldaritza erakustaldia izango da Kultur Etxeko sotoan bihar, hilak 15, goizeko 11:30ean eta arratsaldeko 17:00etan. Elikadura osasuntsua eta goxoa prestatzeko hainbat aholku emango dira eta joaten diren denek oroigarri bana jasoko dute. Sarrera doanekoa da.

OSPAKIZUNAK

1941. urteko kintoen bazkaria

1941. urtean jaiotako kintoek urtero ospatzen duten bazkaria martxoaren 23an, domekan, izango da. Gabi jatetxean elkartuko dira 14:15etan. Izena eman nahi izanez gero, 943 74 12 34 telefonora deitu martxoaren 19a baino lehen.

1955. urteko kintoen bazkaria

55ean jaiotako kintoen bazkaria martxoaren 22an, zapatuan, izango da, pasatako garai zaharrak gogoratzeko. San Pedro jatetxean izango da bazkaria 14:30ean. Arratsaldeko 19:00etan, berriz, hildako kintoen omenezko meza izango da San Bartolome parrokian. Parte hartu nahi dutenek ahalik eta azkarren eman behar dute izena telefono honetan: 943 74 09 38 (Angel Gurrutxaga).

KONTZERTUAK

Udal Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika bandak kontzertua eskainiko du domekan, martxoaren 16an, Herriko Antzokian. Eguerdiko 12:30etatik aurrera honako pieza hauek joko dituzte Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean: "Guadix" (P. Azpiazu), "Othello" (G. Rossini), "El Cantar del Arriero" (F. Diez Giles), "Rapsodia Vasca" (V. Beobide), "The Olympic Spirit" (J. Williams)

Pe'r zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Pianojolea" (Korrika Kulturala)

14, barixakua: 22:15

"8 millas"

15, zapatua: 19:30-22:15

16, domekia: 19:30-22:15

17, astelehena: 22:15

"Nos hacemos faltas" (Z.K.)

20, eguena: 22:15

"Otra terapia peligrosa"

21, barixakua: 22:15

EIBAR

Unzaga

"A proposito de Schmidt"

14, barixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 17:00-19:30-22:30

16, domekia: 17:00-19:30-22:30

17, astelehena: 19:30-22:15

18, martitzena: 19:30-22:15

19, eguaztena: 19:30-22:15

"Daredevil"

14, barixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 17:00-19:30-22:15

16, domekia: 17:00-19:30-22:15

17, astelehena: 19:30-22:15

18, martitzena: 19:30

19, eguaztena: 19:30

IZARRENEk ez du gerta litezkeen emanaldien
-111'ketun ■-r3nr/uki71inils



"8 millas"

Zuzendaria: Curtis Hanson.

Antzezleak: Eminem, Kim Basinger, Britany Murphy.

Detroiteko biztanleentzat 8 Mile hiriaren muga da. Honez gain, Jimmy Smithentzat (Eminem) muga psikologikoa ere bada, bere egungo egoera eta zer eta non izan nahi duenaren arteko muga, alegia. Eminem, rapero zuri arrakastatsu eta polemikoak aktore gisa lan egiten duen lehen filma da eta autobiografikoa ez izan arren bere bizitzan oinarrituta dago. Curtis Hanson, L.A. Confidential filmeko zuzendaria, Eminemen jarraitzaileei zuzendutako film bat baino zerbait gehiago egiten saiatu da.

N



A

ste honetako erretratu zaharra **Juanita Gabilondok** laga digu. 1948. urtekoa da, eta dirudienez, Plaza Handian, Udaletxe aurrean aterata dago. Egun honetan, Imanol Konderen soldaduskako despedida ospatu zuen "PikupC izeneko lagun koadrila honek, eta argazkian ikusten den bezala, umore onean pasatu zuten eguna. Gogora dezagun zein diren erretratuan agertzen diren gazte hauek.


Goian, ezkerretik eskumara: **Imanol Konde, Luis Bilbao, Santiago Urain (t), Jose Antonio Altzibar (t), Arozena, Pedro Mari Esnaola eta Carlos Revenga.** Erdian, ezkerretik eskumara: **Gerardo Garate (t), Migel Anjel Konde** (besoetan daukan umea) eta **Sebastian Odriozola.**

Behean: **Luis Larrañaga, Jose Maria Igartua, Imanol Furundarena (t) eta Ramon Uriguen (t).**



I. URTEURRENA


*2002ko martxoaren 14an, 73 urte zituela hil zen
FELIX ALONSO JUARISTIen oroinez
URTEURRENEKO MEZA izango da
larunbata, hilak 15, 20:00etan Madalako elizan
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.*




ETXEBIZITZAK ETA APARKALEKUAK

Wirffl. 11111 L'IV IIDVD11111

AITZOLA (Bainuetxearen ondoan)



126.212,54 eurotik aurrera
(20 000.000 pezetatik aurrera)



FATXADA NAGUSIA

Argibide gehiago:

ANTT inmobiliaria

Tel.: 943 74 80 92

Antonio Arrillaga kalea, 1 behea

AUKERA EZ1N HOBEA!!!

RITORCII CGUIA

egiozu merezi duen oparia



Gabilondo tabako denda



ARAMBURU

BITXIDENDA



thais

Bitxidenda



azkue

ARGAZKIAK



**IRIARDO
KIROLAK**

GARATE tabako denda



ecenarro



JOSU bitxidenda